



"Peru Tximaluze"

http://eu.wikipedia.org/wiki/Peru_tximaluze

Struwwelpeter en defentsa

Gaztelaniaz esaten da: "cada uno es de su padre y de su madre". Etxean ikasten duguna betirako gordetzen dugu. Nola heziko ditugu gure umeak?

Hitz egin dezagun horri buruz. Zer iruditzen zaizkigu historia hauek. Ondo al dago gauza horiek erakustea umei? Horrela heziko al ditugu? Irakaspenak onak dira? Jasotzen dituzten zigorrak zuzenak dira?

Gaur egun umeentzat horrelako historia izugarriak ez dira egiten. Ez direla zilegi uste da, nola erakutsiko diegu ba erreta hilko daitezkeela edo hatzak moztuko dizkiegula. Guk ikusi nahi ez duguna ez diegu umei erakutsi ahal eta beldurtzen gaituena ezin diegu adierazi. Baina umeek horrelako historiak sortzen dituzte edo imajinatzen dituzte, nahiz eta gurasoek ez kontatu, oraindik ez dituztelako aurreritzirik.

Friedrich Karl Waechter. *Der Anti-Struwwelpeter* ere badago,. Askotan gurasoak izaten gara umeak gaizki portatzearen erantzuleak, haiek ikusten dutena egiten dute, ba al da umerik "naturalki" gaiztoa dena? Hala denak dira "naturalki" gaiztoak?

Nik uste dut hauek "lustige Geschichten eta drollige Bilder" direla eta umeek horrela ondo ikasi ahal dutela.

Hori guztia gero, lehenik Jürgen eta Jurek-en itzulpena analisatuko dugu.

BILBON, HIKATENEOAN,
MARTXOAREN 27an 17 etatik aurrera
Jürgen Lange eta Jurek Ziemkiewicz